

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

6483

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 21ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, zeinaren bidez argitaratzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bileran hartutako erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko dirulaguntzen deialdia onartu du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikularen o) letran xedatutakoaren arabera, organismo autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Azaldutakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 21ean egin-dako bileran onartutakoa; erabaki hori ebazpen honen eranskinean agertzen da.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdia onartzeko hartu duen erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Jakinaraztea, deialdia onartzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administra-zio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaiola organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 21a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

2021eko abenduaren 31, ostirala

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANDA- ETA HIRI-INGURUNEETAKO EMAKUMEEI
LAGUNTZEKO PROGRAMA GARATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EUROPAR
BATASUNAREN NEXTGENERATIONEU FUNTSAK FINANTZATUTAKO SUSPERTZE,
TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

Kontseilu Europarrak pasa den 2020ko uztailaren 21ean onartu zuen NextGenerationEU finantza-tresnak barnean hartzen du, elementu nagusi gisa, «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa»; horren helburua estatu kideetan inbertsiok eta erreformak sustatzea da, suspertze iraunkorra eta erresilientea lortzeko, eta, bide batez, justizia sozialean oinarritutako hainbat erreforma ahalbidetzea, bai estatu mailan, baita eskumenak eskualdatuta dituzten autonomia-erkidegoekin baterako gobernantzan ere.

Suspertze Funts Europarreko finantza-baliabideak bideratzea Ministroen Kontseiluak 2021eko apirilaren 27an onartu zuen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren bidez gauzatzen da.

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruko VIII. politika eragileak («Zaintza-lanen eta enplegu-politiken ekonomia berria») 23. osagaia jasotzen du: «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusiboa baterako politika publiko berriak»; Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak gidatutako osagai horren lehenetsitako erreforma-ekimen eragileetan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak hartzen du parte.

Osagai horrek erronka eta helburutzat hartu du Espainiako lan-merkatuaren erreforma bultzatzea, gizarte-elkarrizketaren markoan, gaur egungo errealitatera eta beharretarako egokitzeko eta egitura-ahultasunak zuzentzeko, azken helburua egiturazko langabezia eta gazteen langabezia murriztea, bitasuna zuzentzea, giza kapitala hobetzea, negoziazio kolektiboa modernizatzea, enplegu-politika publikoen efizientzia areagotzea izanik, gure ekonomiak eskatzen dituen eraldaketei lotutako arloetako langileak gaitzera bideratuko diren enplegu-politika aktiboak bultzatzen diren bitartean.

Osagai horretan proposatutako erreforma eta inbertsioen artean, 2. inbertsioa dago, «Emakumeen enplegua eta genero-zeharkakotasuna enplegurako aktibatze laguntza-politika publikoetan»; horren baitan kokatzen da «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa».

Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeen prestakuntza maila hobetzeko berriazko programa hori abian jartzea, hasteko, tokiko jarduera ekonomikoan parte-hartzea areagotzeko sentsibilizatzen da, prestakuntza-aukerak eta arlo digitalean, teknologikoan, ekintzailertzan eta gizarte-ekonomian laguntza eskaintzeko, honako hauei lotuta: produktu endogenoak (dimentsio berdea eta tokikoa), baso-, arrantza- eta nekazaritza-ustiapena, online merkataritza-jarduerak eta mendetasunerako laguntza.

Gainera, hiriko bizitza leheneratu beharra dago, bizitza hori kalitatezkoa izateko eskatzen duen biztanleriaren eskariei erantzuteko; batez ere, ekonomia berde, urdin eta zirkularra eta hiri barruko mugikortasuna bultzatzeko. Era berean, baserrialdeak suspertzeko, erronka demografi-koari heltzeko eta pertsonen bizimoduaren eta lanaren kalitatea berreskuratzeko, baserrialdeetako emakumeen enplegagarritasuna sustatzeko jarduketak bultzatzen dira; horrela lortzen da beren lanbide-aukerak hobetzea eta landa-inguruneari lotutako genero-etena murriztea, horrek funtsezko zeregina betetzen baitu udalerrri txikiak eta baserrialdeak biziberritzean, emakumeen prestakuntza maila hobetuz eta aukerak sortuz beren talentua finkatzea lortzen duelako, aukera berriak irekitzen eta eskualde horietako garapen ekonomikoa eta soziala sustatzen diren bitartean.

Baserrialdeetako emakumeak lan-mundura sartzeari buruzko datuak oraindik ere Europako batezbestekoaren atzetik daude, egiturazko arrazoi soziodemografikoengatik; arrazoi horiek urrun-

tzen dituzte emakumeak produkzio-saretik, izan ere, emakumeak familia zaintzeaz, ordaintzen ez diren jardueretan parte hartzeaz edo familia inguruko zereginenez arduratzen dira batez ere, eta ez dute berriazko prestakuntzarik.

Programa horrek ibilbide pertsonala eta integratua inplikatzeko du, parte hartzen duten emakumeei orientabideak, aholkuak eta beren enplegarritasun-profilera egokitutako prestakuntza-jarduerak eskaintzeko. Emango den prestakuntza lurraldean aukera onak dituzten lanpostuekin lotuta egongo da, landako eta hiriko lan-merkatuaren beharrak (tokian tokikoak) kontuan hartuta; gainera, prestakuntzaren helburua parte-hartzaileen enplegarritasuna eta lan duina lortzeko aukerak areagotzeko ezagutza lortzea da, baserrialdeen garapen produktiboa indartzen, genero arrailaren aurka borrokatzen eta emakumeen egoera lurralde horretan hobetzen den bitartean. Programaren % 35 –gutxienez– klimarekin zerikusia duten kompetentziekin lotuta dago, eta beste % 35 kompetentzia digitalei buruzkoa da.

Urriaren 11ko TES/1121/2021 Aginduak, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruko «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumei laguntzeko programa» finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarriak ezartzen dituenak, aipatu programa arautzen du eta dirulaguntza publikoen emakida arautzeko oinarriak ezartzen ditu.

«Landa- eta hiri-inguruneetako emakumei laguntzeko programak» baserrialdeetan eta hiriguneetan bizi diren emakumezkoen prestakuntza maila hobetzea du helburu, 2. inbertsioaren helburu estrategikoa lortzen laguntzeko; aipatu 2. inbertsioa («Emakumeen enplegua eta genero-zeharkakotasuna enplegurako aktibatze laguntza-politika publikoetan») 23. osagaien («Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak») kokatzen da, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruko VIII. politika eragilearen markoan («Zaintza-lanen eta enplegu-politiken ekonomia berria»).

Deialdiko aurrekontuaren % 35 eraldaketa ekologikoak laguntzeko jarduerak finantzatzera bideratzen da, «01-Kompetentzia eta enplegu berdeak» etiketarekin (% 100), eta beste % 35 eraldaketa digitala sustatzeko jarduerak finantzatzera: «108-Gaitasun digitalak garatzeko laguntza (% 100)» etiketarekin.

Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak Europako funtsen bidez finantza daitezkeen dirulaguntzak izapidetzea arindu eta malgutzeko arauak ezartzen ditu. Aipatu Errege Lege Dekretuaren arabera, eta bere 62. artikulua aplikaturik, aginduaren xede diren dirulaguntzak artikulua horretan ezarritako lehiarik gabeko prozeduraren arabera izapidetuko dira, Europako funtsen bidez finantza daitezkeen dirulaguntzak dira eta; azaroaren 17ko 38/2003 Legeak arautzen dituen dirulaguntza horien helburua beste proposamen batzuekin konparaziorik behar ez duten jarduera konkretuak finantzatzea denez, emakida-ebazpenak eskaerak aurkezteko hurrenkeran emango dira, jarduera diruz laguntzeko modukoa ote den eta gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Konkurrentzia jarraituaren prozedura da, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginean dagoeneko jaso dena.

TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa; horren bidez, lurralde mailan banatzen dira Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko kredituak, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, lan arloko eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten; aipatu kredituak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako programa gauzatzeko dira.

2021eko abenduaren 31, ostirala

Lehendakariaren 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko, eta horien egitekoak eta jardun arloak finkatzeko; dekretuak Lan eta Enplegu Sailaren esku uzten du enplegu-politika eta enplegurako lanbide-heziketa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren lankidetzarekin, dagozkion erantzukizunak kontuan izanik, Hezkuntza Sailak gai honetan –oro har, lanbide-heziketaren arloan– dituen eginkizunak –zuzendu, antolatu eta planifikatzea– oztopatu gabe.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoari (Lan eta Enplegu Sailari atxikita dago) dagokio, besteak beste, enplegu-programen, enplegurako prestakuntza-programen eta autoenplegua eta enpresen sorkuntza sustatzeko programen kudeaketa. Egiteko horren barruan dago dirulaguntzetarako deialdiak onartzea eta izapidetzea, hala ezarrita baitago maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuak onarturiko organismo autonomoaren estatutuen 3.b) artikuluan.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, organismo autonomo horretako Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 21eko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa garatzeko dirulaguntzen deialdia onetsi zuen, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan, honako baldintza hauetan:

1. artikulua.– Xedea eta baliabide ekonomikoak.

1.– Deialdi honen helburua «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programako» dirulaguntzak ematea da; programa urriaren 11ko TES/1121/2021 Aginduaren bidez arautu da, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren markoan.

Deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen xedea, batetik, landa- eta hiri-inguruneetan bizi diren eta askotariko jarduerak –hala nola lanbide-orientazioa, aholkularitza, informazioa, zeharkako kompetentzia eta trebetasunak, laneratzeko laguntza eta enplegua bilatzen laguntzea– nahasten dituzten eta, bestetik, 3.7 artikuluan ezartzen diren arloetan gaitzea eta laneratzea helburu duten bana-banako ibilbideetan parte hartzen duten emakumeei emateko laguntza pertsonalizatua izango da, bide batez, enplegua lortzean benetako berdintasuna eta bereizkeriarik eza bultzatuz.

Laguntza hauek ez dira estatu-laguntza bat Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateak ez baitu lehia faltsutzen, ez eta lehia faltsutzeko mehatxurik ekartzen ere, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez, dirulaguntzen entitate onuradunak erkidegoko eta tokiko sektore publiko instituzionalen administrazio publikoak eta organismoak eta entitateak baitira.

2.– Deialdi honetan araututako laguntzak emateko, baliabide ekonomikoen zenbatekoa 773.662 euro da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren 2022 ordainketa-kredituaren kontura, eta lotura dute Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planarekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarri zuen aipatutako mekanismoa.

Laguntzen bolumen osoak ez du gaindituko aipatutako zenbateko hori edo zenbateko hori eguneratetik ateratzen dena, aurrekontu-aldaketarik onartzen bada indarreko legeekin bat, bereziki 2022an edo 2023an Euskal Autonomia Erkidegoari Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruko funts berriak transferitzen bazaizkio xede bererako eta laguntza hauek finantzatzeari lotutako ordainketa-kreditu berriak sortzen badituzte. Halakorik gertatuz gero, publiko egingo da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedituen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, deialdi honetan iragarritako dirulaguntzen ebazpenak emateko, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022ko aurrekontu orokorretan.

2. artikulua.– Entitate onuradunak.

1.– Entitate hauek izan daitezke deialdi honetako laguntzen onuradun:

- Foru-aldundiak eta foru-sektore publikoa.
- EAEko udalak eta tokiko sektore publikoko entitateak.
- EAEko sektore publikoko entitateak.
- EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako entitateak.
- Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren mendeko prestakuntza-entitateak.
- Irabazteko asmorik gabeko entitate juridikoak, EAEn diruz lagundutako jarduera burutzeko baliabide egokiak dituztenak eta langabetuei beren enplegarritasun-profilaren arabera laguntza emateko ekintzetan –besteren edo norberaren konturako laneratze prozesuetan– esperientzia dutela egiaztatzen dutenak.

Entitateek langabetuei laguntzeko ekintzak garatzen esperientzia dutela joko da, baldin eta honako baldintza hauek ere betetzen badute:

- Proiektu bereziak gauzatzea, % 40 baino handiagoko itzultzetik eragin ez duena.
- Lanbideren orientazio-zentro laguntzailea izatea.
- Lanbideren zentro laguntzailea izatea, bitartekotza-zerbitzua ematen duena.
- Helburu sozialen artean kolektibo kalteberen enplegarritasuna hobetzea daukaten entitateak.

2.– Entitate onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte ekintzak, eta ezingo dute azpikontratazio-rik egin horretarako.

3.– Entitateek irakatsi nahi dituzten prestakuntza-espezialitateetan egiaztatuta eta/edo inskribatuta egon behar dute, eskaera egin aurretik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatzen duen prestakuntza-entitateen erregistroan, enplegurako prestakuntza-entitateen beste erregistro autonomiko batean edo Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan.

Entitateek ibilbide bakoitza garantiaz garatzeko beharrezkoak diren baliabide tekniko eta giza baliabideak daukatela egiaztatu beharko dituzte, eta, ibilbidean aurreikusitako prestakuntza-jarduerak garatzeko, beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak izan beharko dituzte edo dirulaguntza adjudikatu ondoren eskuratzeko konpromisoa hartu, prestakuntza-jarduera hasteko unean. Ez dago baimenduta prestakuntza-jarduera egiteko zerbitzua azpikontratatzea. Ondorio horietarako, ez da azpikontrataziotzat jotzen prestakuntza emateko irakasleak (pertsona fisikoak) kontratatzea. Instalazio eta baliabide horiek propioak edo hirugarren entitate pribatu edo publikoek izan ahal izango dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean baliatu beharko dira.

Informazio hori egiaztatzeko, entitatearen legezko ordezkariak erantzukizunpeko adierazpen bat egingo du (eskaeraren honetara sartuko da). Edonola ere, entitate eskatzaileak Lanbide-Eus-

kal Enplegu Zerbitzuaren esku izan beharko ditu adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla erakusten duten dokumentuak.

4.– Orientazio-jarduerak egiteko, entitate onuradunek jarduera ekiterakoan honako hauek izan beharko dituzte eskura:

a) Interneterako banda zabaleko sarbide eraginkorra, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sistemarekin konektatzeko.

b) Tableta grafikoko periferiko bat, sinadura digitala jasotzeko euskarri modura. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko informazio-sistemara konektaturik egon behar du, eta, horrez gain, STU 430 modeloari edo baliokideari dagokion WACOM gailuarekin bateragarria izan beharko du, eta haren zehaztapen teknikoak bete behar ditu.

c) Telefono-linea finkoa, lokal espezifiko bakoitzarekin harremanetan jartzeko.

Orientazioko ekintzak egiten dituzten langileak teknikari gisa kontratatuko dira, eta unibertsi-tate-ikasketak amaituta izango dituzte.

5.– Ezingo dira onuradun izan honako egoera hauetako batean dauden entitateak:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, dirulaguntza eman eta ordainketa bakoitza egin baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berariaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez edukitzea.

c) Eskatzaileak zigor- edo administrazio-zehapenen bat izatea, dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko aukerarik gabe uzten duenik, edo horretarako ezgaitzen duen lege-debekuren bat izatea, honako hauengatik gertatutakoak barnean direla:

– Sexu-bazterkeriagatik zigorren bat jaso izana, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera.

– Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onarturiko Lan-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko Legearen testu bateginak 46.1.b) eta 46.bis.1.b) artikuluetan xedatutako zehapen osagarri batek hala ezartzen badu, ebazpen irmo bidez.

d) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan xedatzen diren gainerako egoeraren batean egotea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ez badu egiaztatzen 5. apartatuan xedatutako eskakizunen bat, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez frogatu beharko da; adierazpen hori eskabide-orrian jasota dago.

6.– Entitate onuradunak «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen dituztela bermatu beharko dute, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, baita

hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat ere. Proiektuak diseinatu eta gauzatzeko fase guztietan bete beharko dira, modu indibidualean jarduketa bakoitzerako.

7.– Halaber, entitate onuradunek konpromisoa hartu beharko dute behar diren eskubideak eta sarbideak onartzeko, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

3. artikulua.– Diruz laguntzeko moduko jarduerak, arreta eta gizarteratze helburuak eta laneraztea eskatzen duten lehentasunezko esparruak.

1.– Deialdi honetan araututako dirulaguntzen xedea 1. artikuluan aipatutako bana-banako ibilbideak finantzatzea da; ibilbide horiek «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programan» parte hartzen duten emakumeentzat prestatuko dira, gauzatze-epean, hau da, 2022. eta 2023. urteetan garatzeko, eta honako jarduera hauek barnean hartu ahal izango dituzte:

a) Enplegarritasunaren diagnostikoa eta laneratzeko ibilbide pertsonalizatua; enpleguaren akordio pertsonala sinatu ondoren, parte-hartzaileek Programan zehar egingo dituzten jarduerak identifikatuko ditu, eta erabakiko du emango zaien arreta mota, gauzatze-egutegia, jarraipen-sistema eta lortutako emaitza barne, enplegarritasunaren bilakaera kontuan hartuta.

b) Lan-orientazioko ekintzak eta parte-hartzaileen enplegu-bilaketa errazteko ekintzak, sensibilizazio-jarduerak eta norberak lana lortzeko behar dituen ezaugarriak garatzeko jarduerak barne: enplegua modu aktiboan bilatzeko prozesua, teknikak, baliabideak eta tresnak, curriculuma idaztea, lan-elkarrizketak prestatzeko mintegia eta abar. Horrez gain, honako hauek ere landuko dira: lan-merkatuari buruzko informazio orokorra, autoenplegua, lurraldean dauden joerak, lanbide-aukerak eta lan-aukerak, batez ere, artikuluan honen 7. apartatuan aipatutako arloetan; arlo horiei lotutako ekintzailtzaren eta gizarte-ekonomiaren inguruan motibatze eta aholkuak emateko saioak.

c) Lanerako prestakuntza eta lanbide-kualifikazioa berriz lortzeko jarduerak, batez ere, artikuluan honen 7. apartatuan aipatutako arlo eta lanbide-jarduerari lotutako edukiei buruzkoak, lan batean aritzeko egokiak eta nahikoak diren ezagutza teknikoak eta trebetasunak lortzea ahalbidetzen dutenak, ahal bada, aipatu lan arloetan, edo bestela, ezagutza, prozedurak, teknologiak edo joerak eguneratzea edo berriz lortzea, bereziki, adierazitako arloetan. Parte-hartzaile guztiek ondoko prestakuntza-espezialitateetako bat gutxienez ikasi beharko dute:

- FCO108: ekintzailtzarako oinarrizko konpetentzia digitalen hastapenak.
- FCO106: oinarrizko konpetentzia digitalen hastapenak.
- FCO107: enplegurako oinarrizko konpetentzia digitalak.

d) Zeharkako konpetentzien tailer-saioak (alfabetatze digitala, talde-lana, denboraren kudeaketa eraginkorra, emaitzak lortzeko joera besteak beste); parte-hartzaileak ahalduntzea, laneratzeko eta gizarteratzeko; lana eskuratzean berdintasuna bultzatzea, Programaren hartzailea den kolektiboaren berezitasunak kontuan hartuta.

e) Parte-hartzaileek ibilbide pertsonalizatua garatzen duten bitartean laguntzea, enplegarritasuna bultzatzeko eta hobekuntzaren jarraipena egiteko, baita lanean hasten direnean laguntzea ere.

f) Programa egiten den lurraldeko lan-merkatuaren azterketa, honako hauek ahalbidetzen duena: inguruko ekonomia- eta lan-egoerari buruzko informazio eguneratua lortzea, enpresa-sareko lan-gileriaren beharrak identifikatzea, eskatzen diren lan-profilak ezagutzea, lan-aukerak aurkitzea, «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko Programaren» berri zabaltzea, eta enpre-setan aurkitutako lanpostu hutsak betetzeko hautagai gisa parte-hartzaileak proposatzea; hori guztia, aurreikusitako helburua –laneratzea– betetze aldera.

Dirulaguntza jasotzeko, ibilbideek a), c) eta e) apartatuetan aurreikusitako jarduerak gutxienez hartu beharko dituzte barnean.

2.– 1. artikuluan aipatutako ibilbide pertsonalizatuak osatzen dituzten ekintzak –banakakoak zein taldekoak–, ahal bada, apirilaren 10eko ESS/381/2018 Aginduaren eranskinean aurreikusitako protokoloak betez burutuko dira; agindu horren bidez, Enplegu Sistema Nazionalaren Zerbitzu Zorro Komuneko protokoloak garatzeko erreferentzia den Gida Teknikoa onartu da.

3.– 1. artikuluan aipatutako bana-banako ibilbideak gehienez ere 6 hilabetekoak izango dira, eta proiektua onartu eta hurrengo bi hilabeteetan hasi beharko dira.

4.– Gainera, proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Udalerri bakar batean egin nahi diren proiektuen kasuan, udalerriko biztanleen kopurua ezin izango da 5.000 baino handiagoa izan; udalerri bat baino gehiagotan garatu nahi diren proiektuen kasuan, aldiz, lurralde-eremuan, udalerrien % 35, gutxienez, 5.000 biztanletik beherakoa izango da.

b) Parte-hartzaileen % 35ek bana-banako ibilbidea jarraituko dute, konpetentzia eta enplegu berdeak lortzea helburu.

c) Parte-hartzaileen % 35ek bana-banako ibilbidea jarraituko dute, konpetentzia eta enplegu digitalak lortzea helburu.

d) Programa gauzatzeko sortutako bana-banako ibilbidean parte hartzen duten emakumeen % 20k, gutxienez, lanbideratzea lortuko dute, norberaren edo besteren konturako.

5.– Deialdi honen ondorioetarako, arreta jaso duen parte-hartzaileak joko da bere enplegarritasuna eta laneratze aukerak hobetzeko ibilbide pertsonalizatua jarraitu duen emakumea; aipatu ibilbidea aldeztetik egindako diagnostikoa –enplegarritasunarena– oinarri hartuta definitzen da, 3.1 artikuluan a) puntuan aurreikusitakoaren arabera, hori guztia, emakumearen profilarekin, beharrekina eta itxaropenekin bat datozen eta ekoizpen-mundura sartzea ahalbidetuko dioten jarduerekin osatuta, ibilbidea egiteko egutegia eta horren jarraipena barne. Dena den, lanbide-kualifikazio bat lortzeko eta aldatzeko prestakuntza-jarduerak osatu beharko dute ibilbidea.

Arreta hartu duen pertsonatzat jotzeko, apartatu honen lehenengo paragrafoan esandakoaz gain, egiaztatu beharko da parte-hartzaileak laguntza jaso duela, gutxienez, 3.1 artikuluan honen e) letran aipatutako modalitateetako batean, eta alfabetatze digitaleko ezagutza duela, probetxuz egin baitu artikuluan honen 1.c apartatuan aipatutako oinarritzko konpetentzia digitalei buruzko prestakuntza-espezialitateetako bat. 1.1 artikuluan adierazitako ondorioetarako, parte-hartzaile artatuak Programa honen xedea den bana-banako ibilbidea osatu edo amaitu duten parte-hartzaileak izango dira.

6.– Deialdi honen ondorioetarako, parte-hartzaile laneratutzat joko da aurreko apartatuan deskribatutako mailara iristeaz gain, enplegarritasunaren diagnostikoa eta enplegua lortzeko ibilbidea eskuratzen denetik lan-merkatuan sartzea (norberaren edo besteren kontura) eta Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean kotizatzea lortu duen pertsona.

Parte-hartzaile laneratutzat jotzeko, kotizatutako egunen gutxienerako epea 90 egunekoa izango da; egun horiek jarraian ez badaude, gehienez 5 hilabeteko epekoak izan behar dute, lehenengo kontratazio-aldia hasten denetik edo norberaren kontura jarduten hasten denetik aurrera. Kotizatutako egunen gutxienerako kopuru hori egiaztatzeko, kontratatutako pertsonaren laneko bizitzaren atalera sartuko da. Lanaldi partzialeko kontratuei dagokienez, gutxienez lanegun erdikoak onartuko dira bakarrik, eta lanaldi partzial bakoitza kotizatutako lanaldi osoko egunaren % 75 balitz bezala zenbatuko da.

7.– Diruz laguntzeko moduko ibilbideak, horien ondorioz beteko diren lanpostuak eta lortuko den lanbideratzea, artikuluko honen lehenengo apartatuan adierazitakoarekin bat, konpetentzia eta enplegu berdeetara begirakoak izango dira, eta, gainera, iraupen luzeko zainketen, ekintzaitzaren eta gizarte-ekonomiaren arloekin lotuta egongo dira; horrez gain, besteak beste, honako hauekin izango dute zerikusia: energia berriztagarriak, uren eta hondakinen tratamendua, ingurumena errespetatzen duten basogintza eta nekazaritza, ekonomia zirkularra, zerbitzuen digitalizazioa, onlineko merkataritza-jarduerak, teknologia, landa-inguruneen garapena –tokikoa eta iraunkorra–, lurralde-kohesioa (ondarearen kudeaketa, turismo-jarduera, tokikotasunaren dimentsioa eta dimentsio berdea duten ekintzaitza eta gizarte-ekonomia, produktu endogenoei lotutakoak) eta kohesio soziala (mendetasunari arreta ematea eta kolektibo kalteberekin esku-hartzeak) indartzen dituenak.

8.– Eskaeren parte-hartzaileen gutxienerako kopurua 8 izango da.

4. artikulua.– Programaren hartzaileak.

Deialdi honetan diruz lagunduko diren bana-banako ibilbideetan parte hartu ahal izango dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta dauden emakume langabetuek, batez ere, 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnek, prestakuntza edo lanbidea lortu edo aldatzeko beharra dutenek.

Deialdi honen ondorioetarako, emakume batek lanbide-prestakuntza behar duela ulertuko da, ez badu lan-sektore konkretu batean lanbide batean jardutea ahalbidetzen dion profesionaltasun-ziurtagiririk, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu-titulurik, erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketako titulurik edo unibertsitateko titulaziorik.

Deialdi honen ondorioetarako, emakume batek lanbide-aldaketa behar du, profesionaltasun-ziurtagiri bat, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu-titulu bat, erdi-mailako edo goi-mailako lanbide-heziketako titulu bat edo unibertsitateko titulazio bat izan arren, titulu horiek hautaketa-data baino 5 urte lehenago lortu badira, eta bere lan-bizitzaren agirian ez badago ikasketa arloarekin zuzenean lotuta dagoen kontraturik, programan sartu aurreko urtean; ondorioz, jarduera egiteko ikasketa horiek behar dituela ulertuko da.

Emakume langabetuak, inskribatuta daudenak eta 5.000 biztanletik beherako udalerrietan bizi direnak proiektu bakoitzean parte hartzen duten pertsonen % 35 izango dira, gutxienez.

5. artikulua.– Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Ibilbide pertsonalizatuak garatzeko dirulaguntzaren finantzaketa osoa dagokion emakidea-ebazpenean zehaztuko da, arreta jaso behar duten emakumeen kopuruaren, aurreikusitako laneratze helburuen eta dagokion moduluaren arabera; horrenbestez:

a) Artatutako emakumeen jasotako zenbatekoa 1.715 euro izango da, besteak beste, materialen, publizitatearen, baliabide teknikoaren, emakume parte-hartzaileei arreta ematen dieten langileei eman beharreko prestakuntzaren gastuak barne.

b) Aurreko apartatuan aipatutako zenbatekoari 2.500 euro gehituko zaio; diru kopuru hori arreta jaso ondoren lan-merkatuan sartu den emakume bakoitzeko jasoko da; arreta jaso ondoren bere konturako ekintzailatza-jarduera bati ekiten dion emakume bakoitzeko 6.000 euro jasoko da. Zenbateko osagarri horiek lan-merkatuan sartzea lortu duten parte-hartzaileen % 20k bakarrik jasoko ditu, dirulaguntza moduan.

2.– Artikulu honetan aipatutako zenbatekoak modulutzat jotzen dira, dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko eta justifikatzeko; modulu bidezko araubidearen bidez zehaztuko dira, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 76. artikulutik 79. artikulura bitartean ezarritakoari jarraikiz.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Deialdi honetan aipatzen diren dirulaguntzak jasotzeko eskabideak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari zuzenduko zaizkionak, bide elektronikoz izapidetuko dira, hain zuzen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntzarako aplikazio informatikoaren bidez (LanF); entitatearen legezko ordezkariak sinadura elektronikoa jarri beharko du eskaeran.

Aplikaziora sartzeko aukerarik ez duten entitateek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-oriaren bidez eskatu ahal izango dute: <https://www.lanbide.euskadi.eus/prestakuntza/-/informazioa/erakundeen-erregistroa/>

Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa (izapidetze elektronikorako jarraibideak ematen dituena) helbide honetan egongo da eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/1209501>

2.– Entitate bakoitzak proiektu bakar bat aurkeztu ahal izango du. Proiektu bakoitza gauzatzeko ezarritako bana-banako ibilbideak, baita proiektua osatzen duten diruz laguntzeko moduko jarduerak ere, honela antolatuko dira: parte-hartzaileen % 35ek (gutxienez) kompetentzia eta enplegu berdeak lortu beharko dituzte, eta gainerako parte-hartzaileen % 35ek (gutxienez) kompetentzia eta enplegu digitalak eskuratuko dituzte. Gainera, proiektu bakoitzak barnean hartu behar du – laneratze-helburu gisa– parte hartzen duten eta arreta jasotzen duten emakume guztien % 20k, gutxienez, norberaren edo besteren konturako enplegua lortzea, 5.1 artikulurekin bat, lan-merkatuan sartzea lortzen duten parte-hartzaileen % 20 bakarrik diruz lagunduko dela kontuan izanik.

Udalerrri bakar batean egin nahi diren proiektuen kasuan, udalerriko biztanleen kopurua ezin izango da 5.000 baino handiagoa izan. Udalerrri bat baino gehiagotan garatu nahi diren proiektuen kasuan, lurralde-eremuan, udalerrrien % 35, gutxienez, 5.000 biztanletik beherakoa izango da.

Entitate onuradun bakoitzak eskatzen duen zenbatekoa ezingo da deialdiko zuzkidura osoaren % 20 baino handiagoa izan.

3.– Dirulaguntzaren eskabideak diruz laguntzeko ibilbide pertsonalizatuaren proiektua jasoko du, eta, LanF aplikazio informatikoan, jarraian zerrendatzen diren eta proiektuaren deskribapen-txostena osatzen duten eremuak beteko dira:

1) Proiektuaren izena.

2) Proiektua koordinatzeko harremanetarako pertsona(k) eta bere(n) datuak.

3) Artatu behar diren parte-hartzaileen kopurua eta aurreikusitako helburuak, laneratzeari dagokionez.

4) 5.000 biztanletik beherako udalerrria edo, hala badagokio, jarduteko eremuak, non udalerrrien % 35ek 5.000 biztanle baino gutxiago izan beharko du; udalerrrien multzo biak argi eta garbi identifikatuko dira.

5) Kostu osoa, gaitasun eta enplegu berdeetara, batetik, eta kompetentzia eta enplegu digitale-tara, bestetik, bideratuko den aurrekontua adierazita, eskatutako dirulaguntza eta, hala badagokio, entitate onuradunaren ekarpena berezita.

6) Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak garatzeko eskatzen diren ekintzak:

6.1.– Prestakuntza jarduerak, batez ere, gaitasun «berdeak» eta/edo digitalak ikasteko, baita zeharkako kompetentzia eta trebetasunak eskuratzeko ere, aurreikusitako hasiera-datak adierazita.

6.2.– Banakako lan-orientazioa jasotzeko ekintzak, aholkularitza, informazioa: ordu kopurua eta egiteko epea.

6.3.– Zeharkako kompetentziak ikasteko eta ahalduntzeko tailer-saioak: ordu kopuruak eta gauzatze epea.

6.4.– Ibilbide pertsonalizatua garatu bitartean laguntzea.

7) Helburu operatiboak eta emaitzakoak. Adierazleak.

4.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) «Kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa («do no significant harm – DNSH» printzipioa) betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, Europako Parlamentuak eta Batzordeak 2021eko otsailaren 12an onetsi zuen (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 2. artikuluko 6. apartatuan ezarritako moduan. (I. eranskina).

b) Tartean dauden Administrazio Publikoen artean datuak lagatzea onartzeko agiria, aplikatu behar den Europako araudian aurreikusitakoa betetzeko, eta Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin bat (II. eranskina).

c) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean ezarritako zeharkako printzipioak –kudeaketaren xedea den arloari eragin ahal diotenak– betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (III. eranskina).

d) Behar diren eskubideak eta sarbideak onartzeko konpromisoa, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita (IV. eranskina).

e) Irabazteko asmorik gabeko entitate juridikoen kasuan, estatutuak aurkeztu beharko dituzte.

Aipatzen diren ereduak LanF aplikazioan egongo dira eskuragarri.

5.– Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkari-tza hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

6.– Eskabideak ez baditu baldintza guztiak betetzen, entitate interesdunari jakinaraziko zaio 10 egun balioduneko epea duela, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunean zenbatzen hasita, izandako hutsune edo akatsa konpontzeko, edo aurkeztu beharreko dokumentuak aurkezteko. Hori

egingo ez balu, eskabideari uko egiten diola ulertuko da, horretarako beharrezkoa den ebazpena eman eta gero.

7.– Eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 17an hasi eta 2023ko irailaren 29an amaituko da.

7. artikulua.– Prozedura eta ebazpena.

1.– Prozedura izapidetu eta ebazteko eskumena duen organoa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren Zuzendaritza izango da.

2.– Dirulaguntzak emateko prozedura lehiarik gabekoa izango da, eta emakida-ebazpenak eskaerak aurkezteko hurrenkeran emango dira, diruz laguntzeko moduko jardueraren konkurrentzia dagoela eta eskatzen diren gainerako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdian esleitutako aurrekontuko kreditua agortu arte.

Hasierako aurrekontu-zuzkidura –1.2 artikuluan aurreikusitakoa edo 2022ko ekitaldiko igoozaren ondoriozkoa– agortzen bada, laguntza berrien emakidak geldituko dira; prozesuari berriro ekingo zaio, dirulaguntzak finantzatzeko aurrekontu-kreditua areagotzea ahalbidetuko duten funts berriak jaso ondoren. Baliabide ekonomikoak guztiz agortzen badira, geratzen diren eskaerei ez zaie dirulaguntzarik emango.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariaren ebazpenaren bidez, EHAAn aditzera emango da prozesua gelditu eta, hala badagokio, dirulaguntzak berriz ematen hasi izana, aurrekontuko kredituaren zenbatekoa adierazita; era berean, jakinaraziko da dirulaguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak erabat agortu izana.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariak laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpena emango du, eta banan-banan jakinaraziko du, bitarteko telematikoen bidez.

3.– Eskabideak ebazteko eta ebazpenak jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan sartzen den egunetik aurrera; epe hori igarotakoan entitate interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, dirulaguntzaren eskaera ezetsi dela ulertuko da.

Dirulaguntza emateko ebazpenak finantzaketa identifikatuko du Europar Batasunaren Susper-tze eta Erresilientzia Mekanismoaren markoan, eta honako hauek jasoko ditu, funtsean:

a) Aurreikusitako helburuak, artatuko diren eta laneratu behar diren parte-hartzaileei eta konpetentzia eta enplegu berde eta digitalei dagokienez.

b) Programa garatzeko kokapen geografikoa, probintzia mailan.

c) Eman nahi den dirulaguntzaren zenbatekoa, bi hauek bereizita: parte hartzen duten emakumeei emateko arreta finantzatzeko zatia, helburu horrekin aplikatu daitezkeen modulu ekonomikoarekin batera, eta modulu osagarria, artatutako parte-hartzaile bakoitzeko, baldin eta laneratzea lortu badu.

4.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariaren ebazpenek ez dute amaitzen administrazio-bidea, eta haien aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Entitate onuradunei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko, ezinbestekoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren organismo autonomoen antzeko dirulaguntzen edo laguntzen kariatara bideratzen hasitako itzulera- edo zehapen-prozedurak amaituta egotea.

6.– Publikotasunaren printzipioa betetzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariaren ebazpen baten bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian emango da jakitera zer entitatek jaso duten dirulaguntza deialdi honen babesean eta zenbateko laguntza jaso duten.

8. artikulua.– Parte-hartzaileak aukeratzea.

1.– Entitateek proiektuaren berri emango dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren web-orriaren bidez, dagokion zerbitzu-eskaintzaren bidez.

Parte-hartzaileen azken hautaketa entitate onuradunak egingo du, aurrez izena eman duten hautagaien artean. Hortaz, entitatea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Prestakuntza Kudeaketaren (LanF) aplikazioan sartu ahalko da izena eman duten hautagai guztien informazioa eskuratzeko, eta hautaketa-prozesua jarduketan hasiera baino nahikoa denbora lehenago eta behar besteko bermearekin egingo du.

2.– Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzetan parte hartzeko, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuaren 20. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Era berean, prestakuntza-espezialitateen katalogoan jasotako prestakuntza-espezialitateen bateko prestakuntza-ekintzetan parte hartu nahi dutenek katalogoan espezialitate bakoitzerako ezarritako sarbide-baldintzak bete behar dituzte. Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko, katalogoan espezialitate bakoitzerako ezarritako sarbide-baldintzak bete behar dituzte hautagaiek.

9. artikulua.– Jarduketak gauzatzea.

1.– Dirulaguntzen entitate onuradunek zuzenean gauzatuko dituzte ekintzak, eta ezingo dute hirugarrenik azpikontratu horretarako.

Prestakuntza-jardueri dagokienez, diruz lagundutako prestakuntza emateko irakasleak kontratatzea ez da azpikontrataziotzat joko. Irakasleak kontratatzea pertsona fisikoak kontratatzea soilik dela ulertzen da.

2.– Gainera, prestakuntza-jardueretan, kontuan izan beharko dira honako hauek:

a) Parte-hartzaileek ezingo dituzte eman egunean 8 ordu baino gehiago prestakuntza-ekintzetan. Nolanahi ere, astean ez dira egingo 40 ordu baino gehiago. Muga horien barruan sartuta egongo dira, egin behar direnean, profesionaltasun-ziurtagiri bakoitzari dagokion lantokiko prestakuntza praktikoko moduluen orduak, edo profesionaltasun-ziurtagiriaz kanpoko ekintzen praktikak.

b) Prestakuntza-ekintza hasi ondoren, erregulartasunez burutuko da, eta prestakuntza-zentroak ezingo du aldi baterako eten, ezinbesteko kasuan izan ezik, behar bezala justifikatuta eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartuta.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestakuntza-ekintza bat kautelaz eten ahal izango du, baldin eta prestakuntza emateko ohiko garapenean eragin nabarmena duten anomaliak hautematen badira.

c) Ikasleren batek prestakuntza-ekintza uzten badu, haren lekuan beste parte-hartzaile bat sartu ahal izango da. Prestakuntza-jardueraren iraupenaren ehuneko 25era iritsi baino lehen onartuko da ordezte hori, salbu eta profesionaltasun-ziurtagiriei loturiko prestakuntza-jarduerak badira; kasu horretan, ordezte prestakuntza-jarduera hasi eta lehen bost eskola-egunetan gertatzen bada onartuko da soilik. Parte-hartzaileek proiektuko ibilbidearekin bat egin beharko dute, prestakuntza-ikastaroko ikasle gisa onartuak izateko.

d) Prestakuntzaren helburua profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea ez bada, lanekoak ez diren lanbide-praktikek ezingo dute iraun, oro har, 200 ordu baino gehiago, eta prestakuntza-ekintza amaitu osteko lehen bi hilabeteetan hasi beharko dira.

Prestakuntza profesionaltasun-ziurtagiriak lortzera bideratuta dagoenean, praktikaren iraupena eta edukiak lan-zentroko prestakuntza praktikoko moduluaren arabera izango dira (Profesionaltasun Ziurtagiria arautzen duen Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritakoak). Enpresak irizten badio iraupena eta eduki horiek nahikoa ez direla, praktika luzatu ahal izango du, lanez kanpoko praktikaren akordio osagarri baten bitartez; hala ere, praktika biek batera ezingo dute gainditu 200 orduko iraupena.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua ikastarora gutxienez bi bisita egiten saiatuko da, bat hasieran eta bestea amaieran.

f) Ikastaroaren hasieran, prestakuntza-zentroek gutxienez honako material hau emango diote prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duen bakoitzari:

- espezialitatearen eduki guztiak biltzen dituen eskuliburu bat, editatua edo euskarri informatikoan,
- ikastaroa zuzen garatzeko beharrezkoa den idazmahaiko materiala eta
- beharrezkoak diren babes-elementuak.

Era berean, zer eskubide eta betebeharrak dituzten azalduko die ikasleei, eta kanporatzeko arrazoiak eta prozedurak ere bai.

g) Parte-hartzaile bakoitzari asistentzia-ziurtagiria edo diploma emango zaio, prestakuntza gainditu badu eta ebaluazioa positiboa izan bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako ereduaren arabera. Dokumentu horretan, gutxienez datu hauek adieraziko dira: prestakuntza-ekintzaren izena, prestakuntza-edukiak, zer modalitatetan eman den, zer egunetan hasi eta amaitu den, eta ikasleak guztira jaso dituen prestakuntza-orduak.

3.– Orientazio-jarduerak gauzatzeari dagokionez, kontuan izan behar dira jarraian ezartzen diren mugak:

Bana-banako ekintzak: Gehieneko arreta-denbora pertsonako eta eguneko: 1,5 ordu

Talde-ekintzak: gehieneko iraupena eguneko: 4 ordu

Pertsona bati ematen zaion arreta osoaren gehieneko denbora (banakako ekintza eta talde-ekintza): 20 ordu

4.– Zeharkako kompetentziei eta ahalduntzeari buruzko tailer-saioak, parte-hartzaileek beren enplegagarritasuna bultzatzeko eta hobekuntzaren jarraipena egiteko jarraitzen duten ibilbide pertsonalizatua garatu bitartean laguntzeko ekintzak, eta lanean hasten direnean laguntzeko ekintzak onetsitako eskaeran aurreikusitakoarekin bat gauzatuko dira, parte-hartzaile bakoitzak helburua lortzeko behar duen egokitzapena egin ondoren.

5.– Parte-hartzaile laneratuei dagokienez, programaren onuradun izango diren entitateek enpresei jakinaraziko diete programaren ondorioz egindako kontratuen jakinarazpenean, Contrat@ aplikazioaren bidez egindakoan, «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeen enplegu programa. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» jarri behar dutela, horretarako sortu den ereduan.

10. artikulua.– Prestakuntza-ekintzetan parte hartuko duten pertsonen eskubideak eta betebeharrak.

1.– Ikasleek doan egingo dituzte prestakuntza-ekintzak.

2.– Ikasleek aseguru-estaldura izango dute, ikastaroetan eta enpresako prestakuntza praktikoan, edo haietara joateko bidean, dituzten arriskueterako, Eusko Jaurlaritzak sinatutako polizak istripuak eta erantzukizun zibila estaliko baititu.

3.– Parte-hartzaileek ikastaroaren egutegia, prestakuntza-ekintzaren programa eta ikasleen eskubide eta betebeharreri buruzko dokumentua jasoko dituzte, lehen eskola-egunean, eta jaso izanaren dokumentua sinatuko dute.

4.– Ikasleek prestakuntza-ekintzetara joan beharko dute, eta haiei etekina atera beharko diete. Hori bermatzeko, entitate onuradunak eguneroko bertaratze-partea egin beharko du, eta irakasleak eta parte-hartzaileak sinatu beharko dute. Profesionaltasun-ziurtagirien kasuan, eguneroko parte hori bereiz egingo da prestakuntza-modulu bakoitzeko.

5.– Ikasleek ezingo dute ikastaro batean baja eman beste prestakuntza-ekintza bat hasteko. Ezin izango dute jarduera utzi harik eta bukatzen den arte, baina salbuespena izango dira honako kasu hauek: enplegua aurkitu badute, eta horrek prestakuntza-ekintzara joatea eta probetxua ateratzea galarazten badie, edo bat-bateko familia-egoera larriren bat sortzen bazaie. Jarduera justifikaziorik gabeko beste arrazoiren barengatik utziz gero, gerta liteke pertsona hori lehentasuneko ez izatea etorkizuneko deialdietako prestakuntza-ekintzetan.

11. artikulua.– Ikasleak baztertzeko arrazoiak eta prozedura.

1.– Honako hauek izango dira ikasleak baztertzeko arrazoiak:

a) Justifikatu gabeko hiru ez-etortzetik gora hilabetean.

b) Prestakuntza-ekintzaren iraupen osoan % 25etik gorako ez-bertaratzea biltzea, dena delako arrazoiengatik, justifikatuta egon zein ez.

c) Prestakuntza-ekintzari probetxurik ez ateratzea, edo ekintza behar bezala egitea eragozten duen jokabide desegokia izatea, osasun- eta higiene-arauak ere kontuan hartuta.

2.– Hau izango da ikasleak baztertzeko prozedura:

Prestakuntza-zentroak prestakuntzako teknikariari jakinaraziko dio baztertzeko arrazoietako bat gertatu dela, horretarako ezarri den eredu erabiliz. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak arrazoi hori aztertu ondoren, Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariak baztertzeko prozedura hasteko erabakia emango du aditzera. Ikaslea baztertzeko proposamenaren arrazoia azalduko da erabaki horretan, eta ikasleak bost egun balioduneko epea izango du alegazioak aurkezteko. Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariak ebatziko du prozedura, gehienez hamabost eguneko epean. Egoerak hala eskatzen badu, baztertzeko-prozedurari ekiteko erabakian behin-behineko neurriak har daitezke prestakuntza-jardueraren jarraipen egokia bermatzeko. Neurri horietako bat izan daiteke ikaslea ikastarotik behin-behinekoz bazterzea, prozedura abiatzeko erabakia jakinarazten

zationetik prozedura ebazten den bitartean. Ebazpenean adieraziko da zein errekurtsio aurkeztu daitekeen.

Asteren batean ikasleren baten asistentzia-faltak prestakuntza-ekintzaren ordu-kopuruaren % 25 baino gehiago badira, edo justifikatu gabeko hiru asistentzia-falta baino gehiago egiten baditu hilabeteen, prestakuntza-zentroak horren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren Zuzendaritzari, ikaslea baztertzeko prozedura has dezan. Modulu oso bat geratzen bada egiteko, eta % 25etik gorako asistentzia-faltak arrazoi justifikatu batengatik gertatu badira (adibidez, gaixotasuna izatea edo lanean hastea), emakume horrek geratzen den modulua egiteko aukera izatea aztertu ahal izango da.

Ikasleren batek prestakuntza-ekintzara joateari uzten badio eta asistentzia-falten % 25 gainditzen baldin badu, zentroak egoera horren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, eta ofizioz emango zaio baja, baztertze-prozedura erabili beharrik gabe.

Prestakuntza-jarduera batetik kanporatzeak edo bajak ibilbideko parte-hartzaileen taldetik baztertzea ekarriko du ondorioz.

12. artikulua.– Prestakuntza-ekintzen ebaluazioa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen babesean emandako prestakuntza-ekintza guztien kalitatea ebaluatuko du, ebaluazio-sistema misto bera baliatuz. Ebaluazio-sistema misto horrek bi iturritatik jasoko du informazioa:

A) Ikasleek betetako galdetegietatik lortutako batez besteko emaitzak, enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituen Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenean xedatutakoaren arabera (2009ko ekainaren 11ko BOE). Galdetegi horiek ikasleek beteko dituzte, telematikoki. Prestakuntza ematen duen entitatearen ardura da kalitatearen galdetegia betetzen dela bermatzea, eta gela bat jarri beharko da parte-hartzaileen esku, diruz lagundutako ikastaroa amaitzen duten ikasle adina ordenagailurekin, inkesta telematikoa bete ahal izan dezaten.

B) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak emandako puntuazioa, «prestakuntza-zentroak edo -entitateak emandako prestakuntzaren ebaluazioa» eredu-agiriaren arabera.

Nolanahi ere, emandako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko, sintesi-adierazle bat egin beharko da prestakuntza-entitateak emandako ekintza bakoitzerako. Sintesi-adierazle hori aipatutako bi informazio-iturrietan lortutako emaitzetatik abiatuta aterako da, formula honi jarraituz:

$$\text{Sintesi-adierazlea} = A \times 0,6 + B \times 0,4$$

A = ikasleek erantzundako galdetegietan lortutako batez besteko puntuazioa, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2009ko apirilaren 27ko Ebazpenak, enplegurako prestakuntza-ekintzen kalitatea ebaluatzeko galdetegiak argitaratzen dituenak, ezarritako moduan.

B = Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko teknikariak emandako guztizko puntuazioa, LanF aplikazio informatikoan eskura jarriko den ereduaren arabera.

13. artikulua.– Dirulaguntzak ordaintzea.

1.– Emandako dirulaguntza bi ordainketatan ordainduko da, horiek eskatu eta gero, honela:

a) Lehen ordainketa (proiektuari dagokion dirulaguntza osoaren % 60), lehen jarduera hasi dela jakinarazi ostean. Ez da bermerik eratu beharko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren alde.

b) Bigarren ordainketa, emandako dirulaguntzaren gainerakoari dagokiona, diruz lagundutako jarduerak amaitu eta justifikatu ondoren.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, entitate eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta behar du.

Entitatea erregistratuta ez badago edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, helbide honetan adierazitako urratsak egin beharko ditu: <https://euskadi.eus/hirugarrenak>

14. artikulua.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Entitate onuradunak, bi hilabeteko epean, «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko Programaren» esparruko jarduerak amaitzen direnetik, diruz lagundutako jarduerak egin izanaren eta izandako gastuen justifikazioa aurkeztuko du, modulu bidezko erregimenaren bidez, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 69., 76. eta 79. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Entitate onuradunak, jasotako dirulaguntzaren bidez betetako helburuak eta ekintzak justifikatzeko aurkeztu beharko duen dokumentazioa justifikazio-memorian jasoko da, horretarako ezarri diren egiaztatze-mekanismoekin bat:

a) Dirulaguntza ematean ezarri ziren baldintzak bete ote diren justifikatzen duen memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen. Memoriak hau jasoko du:

1. Artatuen izaera lortu duten parte-hartzaileen bana-banako ibilbidearen ziurtapena, honako hauek adierazita: ibilbidea osatzen duten jarduerak; noiz egin diren; konpetentzia eta enplegu berdeak lortzea helburu izan ote duten; konpetentzia eta enplegu digitalak lortzea helburu izan ote duten; zein udalerritan burutu diren; zenbat parte-hartzaile artatutzat jo diren; konpetentzia eta enplegu berdeak lortzeko prestakuntzako parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa; eta konpetentzia eta enplegu digitalak lortzeko prestakuntzako parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa.

2. Formalizatutako kontratuak eta langile autonomo gisa edo norberaren kontura jarduten hasi diren (laneratuen izaera lortu duten) parte-hartzaileen kopurua egiaztatzeko ziurtagiria, honako hauek zehaztuta: laneratutako parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa; lortutako enplegu guztien artean, enplegu berdeen kopurua eta ehunekoa eta enplegu digitalen kopuru eta ehunekoa.

b) Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatzeko, lortutako emaitzen arabera. Alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

1. Onuradunaren egiaztapena edo adierazpena, modulutzat jotzen diren unitate fisikoen kopuruari buruzkoa, 5. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, horretarako datu hauek adierazita:

Artatutzat jotzen diren parte-hartzaileen kopurua, 3.5 artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Besteren konturako laneratuen izaera lortu duten parte-hartzaile artatuen kopurua eta ehunekoa, 3.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Norberaren konturako laneratuen izaera lortu duten parte-hartzaile artatuen kopurua eta ehunekoa, 3.6 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, honako hauek adieraziko dira:

Konpetentzia eta enplegu berdeak lortzea helburu duen bana-banako ibilbideko parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa.

Konpetentzia eta enplegu digitalak lortzea helburu duen bana-banako ibilbideko parte-hartzaileen kopurua eta ehunekoa.

2. Jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta 5. artikuluan ezarritako moduluak oinarritzat hartuta kalkulaturako dirulaguntza justifikatuaren zenbateko osoa, artikuluko horretan ezarritako modulu bidezko kalkulatzeko eta kuantifikatzeko sistemaren arabera. Dirulaguntzaren likidazioa artatutzat joko diren parte-hartzaileen arabera egingo da, baita laneratutzat joko diren arabera ere. Likidazioak ez du inola ere gairatuko hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Kalkuluak egiteko, aintzat hartuko da, batetik, artatutzat jotako parte-hartzaileen kopurua bider dagokion modulu ekonomikoa; eta, bestetik, norberaren edo besteren kontura laneratutzat jotakoen kopurua bider kasuan-kasuan dagokion modulu ekonomikoa.

3. Beste sarrera edo dirulaguntza batzuen xehetasunak, diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili badira, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta, hala badagokio, justifikatutako zenbatekoaren eta aurrerakin gisa jasotakoaren arteko aldeari dagokion zenbatekoa sartu izanaren egiaztagiria.

Erakunde onuradunek frogagiriak eta finantzaketari dagokion gainerako dokumentazioa 5 urtez gorde beharko dituzte, eragiketa egiten denetik aurrera, edo, bestela, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, hiru urtez. Formatu elektronikoa gorde beharko dira, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 132. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute gordetzeko.

15. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

1.– Onuradunaren betebeharrak izango dira, deialdi honetako artikuluetan ezarritakoez gain, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 14. eta 46. artikuluetan oro har ezarritakoak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak, eta enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duen araudian eta urriaren 11ko 1121/2021 Aginduan zehaztutakoak; hain zuzen ere:

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak esandako moduan eta maiztasunez, dagozkion urratsak eta helburuak betetzea ahalbidetzen duten datuen aldizkako bilakaera jakinaraztea eta egiaztatzea.

– Jasotako dirulaguntzak proiektu eta jarduerak finantzatzeko aplikatzean iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko neurriak hartzea.

– Etiketatze digitalaren («108-Gaitasun digitalak garatzeko laguntza» etiketa) eta berdearen («01-Konpetentzia eta enplegu berdeak sustatzea» etiketa) ondoriozko betebeharrak betetzea.

– Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak edo Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzak egin ditzaketen egiaztapen-jarduketak egiten uztea; kontrol finantzarioak egiten uztea, Estatuko Administrazio Orokorraren Esku Hartzaitza Nagusiari dagozkionak, Kontuen Auzitegiaren legedian aurreikusitakoak, baita honako hauek egin ditzaketenak ere: batetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Ekonomia eta Ogasun Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Lan eta Enplegu Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak; eta bestetik, Europako Erkidegoen Batzordeak eta Kontuen Auzitegiak eta Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Auditoretza Bulego Nazionalak eta, hala badagokio, Europako Fiskaltzak.

Nolanahi ere, deialdi honetan araututako dirulaguntzen kasuan, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen, kontrol eta ebaluazioa egin beharko dira, baita ere, informazioaren eta publikotasunaren arloan, kontrol, egiaztapen, jarraipen eta ebaluazioaren

arloan, barne-araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako ezartzen dituzten betebeharrak bete, nahitaez aplikatzekoak direnean.

– Europako Batzordearen kontrol- eta fiskalizazio-organoen kontrol-jarduketak egiten uztea.

– Finantzaketari dagozkion frogagiriak eta gainerako dokumentazioa, baita formatu elektronikoan dauden erregistroak eta dokumentuak ere, 5 urtez gordetzea, dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera; edo, bestela, hiru urtez, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada; hori guztia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 132. artikuluan ezarritakoaren arabera.

– «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen direla bermatzea, eta betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak eta mekanismo horien ezarpena bermatzeko neurri zuzentzaileak aurreikustea.

– Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak –beste administrazio batetik edo estatuko edo nazioarteko erakunde publiko batetik– jaso izanaren beri Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari ematea, kostu berberari dagokion finantzaketa bikoitza sortu gabe.

– Diruz lagundutako jardueraren xedea edo nondik norakoa nabarmen aldatzen duen edozein gertaera jakinaraztea, bai eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako edozein inguruabarraren aldaketa ere.

– Laguntzarekin lotutako transakzioak identifikatzea, kontabilitate-identifikazio bereziaren edo kontabilitate-kode egokiaren bidez.

– Prestakuntza-entitate onuradunaren ordezkariak edo ahaldunak sinatu beharko dute, dirulaguntza onartzeko unean, izaera pertsonaleko datuei dagokien konpromisoa, datu horien tratamenduaren arduradun diren aldetik, arlo hori arautzen duen indarreko legerian ezarritako baldintzen arabera.

16. artikulua.– Komunikazio- eta publikotasun-betebeharrak.

Deialdi honetan diruz lagundutako jarduketak eta jarduketa horiek eta landa- eta hiri-inguru- neetako emakumeei laguntzeko Programa direla eta egiten den publizitate guztia behar bezala identifikatuta egon beharko dira, estatuko araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako ezartzen dituzten informazio, komunikazio eta publikotasunaren arloko betebeharrekin bat etorrira.

Ilido horretan, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten entitateek finantzaketa horren jatorriaren berri eman beharko dute jarduketan publizitatean, eta ikusteko moduan egiten dela bermatu beharko dute. Hala dagokionean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logoaren identifikazio grafikoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra eta finantzaketa-adierazpen egoki bat txertatuko dute, non hau adierazi behar baita: «Europar Batasunak-NextGenerationEUk finantzatuta». Helbide honetan eskuratu ahal dira elementu horiek: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual> Ikusgarritasuna, bereziki, jarduera egiten den lokaletan bermatuko da, material didaktiko guztietan eta bestelako materialetan, prestakuntza-jarduerak eta emaitzak sustatzen direnean, askotariko hartzaileei (komunikabideak eta herritarrak barne) zuzendutako informazio koherentea, eraginkorra eta neurrizkoa emanez.

17. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko eza-

rritako gutxieneko eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

18. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, argi identifikatuta geratu beharko da gastuen trazabilitatea, eta laguntzen eta dirulaguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako gastuen kostua baino handiagoa.

Hala ere, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateraezinak dira Europar Batasunaren funtsekin finantzaturako beste laguntza batzuekin, gastu berberak finantzatzeko badira.

19. artikulua.– Dirulaguntza itzultzea.

1.– Ezin izango da eskatu dirulaguntza ordaintzeko, eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak –osorik edo zati batean– itzuli beharko dira, dirulaguntza eman denetik aplikatu ahal izan diren berandutze-interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 53.1 artikuluan aurreikusitako kasuetan; edo Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) 14. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan; edo deialdi honetan berariaz aurreikusitakoetan.

Eta, bereziki, honako hauetan:

a) Jarduera egin izana eta laguntza ematea edo baliatzea baldintzatzen duten baldintza eta betekizunak bete izana justifikatu beharra ez betetzea.

b) Dirulaguntza lortzea, horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.

c) Jarraipen- eta kontrol-jardunak ukatzea edo oztopatzea.

d) Diruz lagundutako ekintzak gauzatzeko baldintzei buruz errealitatearekin bat ez datozen datu faltsuak ematea.

e) Deialdi honen 16. artikuluan jasotako komunikazio- eta hedapen-betebeharrak ez betetzea.

f) Deialdi honetan ezarritako betebeharrak, baldintza eta betekizunen bat ez betetzea eta, bereziki, egin beharreko jarduerak eta ondoriozko kostu justifikatuak neurri batean ez betetzea/ordaintzea.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren onuraduna den entitateari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, egokitzat jotako alegazioak edo egiaztatgiriak aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio.

3.– Alegazioak aurkeztu ondoren edo alegazio horiek aurkezteko epea igaro ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Enplegurako Lanbide Heziketaren zuzendariak ebazpena emango du.

Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez hamabi hilabeteko epean ebatzi beharko da.

4.– Ebazpenean ez-betetzerekin bat izan dela iritzi gero, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik hasita gehienez bi hilabeteko epean, dagozkion diru-kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra ekarriko du. Epe hori borondatezko epea izango da.

Itzulketa borondatezko aldian egiten ez bada, itzuli beharrekoak premiamendu bidez berreskuratzeke izapideak hasiko dira.

20. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi xedapen hauen araberak jokatu du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortzen diren datu pertsonalak «Enplegurako eta enpleguko prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua da, eta jardueraren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra jazartzea eta datuak estatistiketan erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza kontsultatzeko: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>

21. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzei aplikatuko zaie, batetik, urriaren 11ko TES/1121/2021 Aginduan xedatutakoa (agindu horren bidez ezartzen dira «Landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko Programa», Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren markoan, finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarriak), eta, bestetik, dirulaguntzen legedi orokorra, hau da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, eta hori garatzen duen Erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa, non oinarritzko legegintza osatzen duten Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluaren III. kapitulua (testu bategina azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) eta 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena era horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

2.– Dirulaguntzak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatuta daudenez, Europar Batasunaren erregelamenduak ere bete behar dituzte, Suspertzeko Europako Tresnatik («NextGenerationEU») datozen Europako funtsen kudeaketari dagokionez; hain zuzen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena; abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana egikartzeko presako neurriak onartzen dituena; TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako kredituak, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, lurralde mailan banatzen dituena, lan arloko eskumenak dauzkaten autonomia-erkidegoek kudea ditzaten (kreditu horien helburua Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean jasota dauden «Konpetentzia Digitalen Plan Nazionala» eta «Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» inbertsio-proiektuak gauza-

tzea da); eta HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena.

3.– Era berean, enplegurako lanbide-heziketako prestakuntza-ekintzak barnean hartzen dituzten diruz lagundutako jarduerari dagokienez, aplikagarri izango dira: 30/2015 Legea, irailaren 9koa, lan arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duena; 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, zeinaren bitartez garatzen baita lan arloko enplegurako lanbide-heziketaren sistema arautzen duen 30/2015 Legea, irailaren 9koa; eta TMS/368/2019 Agindua, martxoaren 28koa, zeinaren bidez garatzen baita 694/2017 Errege Dekretua, uztailaren 3koa, irailaren 9ko 30/2015 Legea garatzen duena. Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzea xede duten prestakuntza-ekintzei dagokienez, honako hauek xedatutakoa aplikatuko zaie: 34/2008 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, profesionaltasun-ziurtagiriak arautzen dituena; eta ESS/1897/2013 Agindua, urriaren 10koa, 34/2008 Errege Dekretua garatzen duena.

2021eko abenduaren 31, ostirala



I. ERANSKINA

(EB) 2020/852 ERREGELAMENDUAREN 17. ARTIKULUARI DAGOKIONEZ, INGURUMENENKO SEI HELBURUEI «KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO» PRINTZIOPIOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Jarduketaren identifikazioa	Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta hiri-inguruneetako emakumeei laguntzeko programa, Europar Batasunaren NextGeneration EU funtsak finantzaturako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.
Jarduerari dagokion STEPeko osagaia	23. osagaia: lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak.
Jarduerari dagokion STEPeko osagaiaren neurria (erreforma edo inbertsioa). Hala badagokio, azpineurria adierazi behar da	C23.I2
STEPeko neurriari (erreforma edo inbertsioa) edo, hala badagokio, azpineurriari esleitutako etiketatze klimatikoa eta ingurumenekoa (VI. eranskina, 2021/241 Erregelamendua)	01 etiketa - Konpetentzia eta enplegu berdeetarako ekarpena (% 100) Ehuneko berdea: % 35
Izen-abizenak	
IFZ	
Bere izenean edo entitate honen ordezkari gisa	
Entitatearen IFZ	
Honako zeregin hau betez:	
Harremanetarako datuak (helbidea:; telefona:.....; e-maila:.....)	

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Goian adierazitako jarduketa dela-eta, eskabidea aurkeztu duela proiektu honetarako:

eta proiektu horrek baldintza hauek betetzen dituela:

A. Ingurumenari dagokionez jasagarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») baten bidez, inbertsio jasagarriak ahalbidetzeko esparru baten ezarpenari buruzko

2021eko abenduaren 31, ostirala



errasketaren errautsetako materialak berreskuratzea, betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.

6. Tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak aurretiaz dauden tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada instalazioen energia-efizientzia areagotzea edo hondakin bereziak birziklatzeko eragiketarako berregokitzea (adibidez, konpostatzeko eta biohondakinen digestio anaerobiorako), betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.

7. Jarduerak zeinetan hondakinen epe luzerako ezabaketak kaltea eragin baitiezaiokie ingurumenari.

E. Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondoriorik ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioirik ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak eta dagozkien berandutze-interesak.

.....(e)n,(e)koaren (e)(a)n.

Sinadura

2021eko abenduaren 31, ostirala



II. ERANSKINA

DATUEN LAGAPENARI ETA TRATAMENDUARI BURUZKO ADIERAZPENA, SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (STEP) BARRUKO JARDUKETAK EGITEARI DAGOKIONEZ

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:; zerga-
 egoitza: ordezkarri eta
 gisa eta STEPEko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Lan-
 merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaian
 definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean parte hartzen duenez, adierazten
 du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa
 ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241
 Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

1. 2. apartatuaren d) letra: «Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko, datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu elektronikoan, eta datu-base bakarrean:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailerak bada Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrita;

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratataren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-data, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan definitutakoaren arabera (26);

iv. Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera bideratutako neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera. Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa zehaztu behar da».

2. 3. apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuaren d) letran aipatutako datu pertsonalak Batasuneko estatuek eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketa onartzeko auditoriaren eta 15. artikulua 2. apartatua eta 23. artikulua 1. apartatua aipatutako akordioaren aplikazioarekin lotutako funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol-prozeduren ondorioetarako, eta auditoriak edo prozedurak dirauten denboran. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren 319. artikuluaekin bat etorrita, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan jasotako finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio integratuaren esparruan, eta, zehazki, berezita, kudeaketari eta etekinari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoa dela bide, adierazten du baimena ematen duela datuak lagatzeko eta tratatzeko, aipatutako artikuluetan berariaz jasotako xedeetarako.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:



2021eko abenduaren 31, ostirala



III. ERANSKINA

SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN (STEP) EZARRITAKO ZEHARKAKO PRINTZIBIOAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:
; zerga-egoitza:)
 ordezkari eta gisa eta STEPeko baliabideen bidez finantzaturako laguntzen onuradun den heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaien definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean parte hartzen duenez, adierazten du ordezkatzeko duen pertsonak/entitateak konpromisoa hartu duela estandar zorrotzenak aintzat hartzeko arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu eta detektatzeko eta, ez-betetzetik hautemanez gero, haien berri emango die agintari eskudunei.

Osagarri gisa, STEPen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioa errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko («do no significant harm» printzipioaren ingelesezko siglak: «DNSH»), plan horren barruan egiten diren jarduketetan. Halaber, adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik eta, duen informazioaren arabera, ez dagoela bateraezintasun-arriskurik Estatuko laguntza-araubidea dela eta.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:

2021eko abenduaren 31, ostirala



IV. ERANSKINA

KONTROL-ESKUMENAK BERMATZEKO, ESKUBIDEAK ETA SARBIDEAK EMATEKO KONPROMISOA.

..... jaunak/andreak (NAN zk.:),
 entitateko (IFZ:; zerga-egoitza:
) ordezkari eta
 gisa eta STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean,
 «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaien
 definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan garapenean, adierazten du ordezkatzeko duen
 entitateak konpromisoa hartzen duela eskubideak eta sarbideak emateko, Batzordeak, Iruzuraren aurka
 Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari
 eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren
 eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta
 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2015/1046
 Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua: